

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

329 Zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2018ko Azaroa

## III. Zinema-press Lehiaketa Festival de Cannes Express



## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

> 2018ko GETXOEXPRESS sariak emanda

- > "Hotzean Garbitu" laburmetraiaren estreinaldia: bi ezezagun, garbitegi bat
- > Ikasturte honetan GIGaz arduratuko diren pertsonak hautatu dira



## Ikasturte honetan GIGaz arduratuko diren pertsonak hautatu dira

Udaleko Gazteria Zerbitzuak 14 eta 25 urte bitarteko bederatzigarren gazte hautatu dituen herriko zenbait tokitan jarrita dauden bederatzigarren Gazte Informazio Guneak arduratzeko, ikasturte honetan; beka batzuen bidez arduratuko dira gazte horiek. Aukeraturako bekadunak honako hauek dira: Asier Del Campo Fernandez (Algortako Kultur Etxea), Maider Atencia Ezpeleta (San Nikolas Ikastola), Asier Yañez Verano (Aixerrota ikastetxea), Alejandra Vicente-Arche Guibert (Musika Eskola), Renata Camacho Condarco (Andra Mariko kiroldegia), Iker Doñabeitia Huesca (Fadura GLHBI), Peru Irastorza Santxo (BHI Julio Caro Baroja), Martín Moreno Itza (Fadura kiroldegia) eta Unai Gantxegi Fernández (Azkorri ikastetxea).

## BEKA SARIAK

\* **2019ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako Kartel Lehiaketa**, 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Irudia (argazkia, marrazkia, collage...) JPG formatuan, 72 p.p.p.-ko bereizmenarekin eta 70 X 50 cm-ko neurrian, bertikalean zein horizontalean, aurkeztu beharko da. Lelo bat proposatu behar da, irudiarekin lotutakoa, baina ez da irudian txertatu behar, izenemate orrian idatzi baiziki ([www.gazteakukera.euskadi.eus](http://www.gazteakukera.euskadi.eus)). Saria joan-etorriko hegazkin txartela izango da proiektuak egingo diren Hego Amerikako herrialdeen artean aukeratzeko den batera bidaiatzeko.

\* **"Txiki Baskardo" Kontakizunen Haurrentzako Lehiaketa**, Kultur Etxeak deituta DBHko 1. Mailako ikasle getxotarrentzat. Ikastetxearen bitartez edo nor bere kabuz hartu ahal izango da parte. Hautatutako pertsonak final batean parte hartuko dute, non sariak izango dituzte jokoan, hizkuntza bakoitzeko bat: Tablet bat, diploma eta 50€ko txekoa. Oinarriak [www.getxo.eus/txikibaskardo](http://www.getxo.eus/txikibaskardo).

### Romoko Gaztelekuaren Programazioa

#### Azaroa

**Hilak 3, larunbata:** TAILERRA: SEXOLOGIA  
**Hilak 6, asteartea:** TXAPELKETA: FIFA  
**Hilak 9, ostirala:** ASANBLADA  
**Hilak 10, larunbata:** JAI TEMATIKOA  
**Hilak 14, asteazkena:** TAILERRA: TEKNOLOGIA DIGITALAK  
**Hilak 16, ostirala, eta 24, larunbata:** TAILERRA: GRAFITIA  
**Hilak 17, larunbata, eta 18, igandea:** IRTEERA: ASTEBURU PASA ORDUÑA  
**Hilak 21, asteazkena:** IRTEERA: ESCAPE ROOM  
**Hilak 22, osteguna:** TAILERRA: TEKNOLOGIA DIGITALAK; PANTAILAK  
**Hilak 25, igandea:** SUKALDARITZA: ONDDOAK  
**Hilak 27, asteartea:** TAILERRA: TEKNOLOGIA DIGITALAK; SARE SOZIALAK  
**Hilak 29, osteguna:** SUKALDARITZA: ERROSKAK  
**Hilak 30, ostirala:** MERENDOLA: URRIKO URTEBETETZEAK

### Algortako Gaztelekuaren Programazioa

#### Azaroa

**Hilak 2, ostirala:** ASANBLEA  
**Hilak 7, asteazkena:** MASTER CHEF: BROWNIE  
**Hilak 9, ostirala:** MASTER CHEF: BASERRIKO PIZZA  
**Hilak 10 eta 24, larunbatak:** MASKULINITATE ETA FEMINITATE EREDU DESBERDINAK  
**Hilak 14, asteazkena:** ESKULANA: KORTXOZKO ITSASONTZIA  
**Hilak 16, ostirala:** TAILERRA: SEXOLOGIA  
**Hilak 17, larunbata, eta 18, igandea:** ASTEBURUPASA: URDUÑA  
**Hilak 21, asteazkena:** MASTER CHEF: PINTXOAK  
**Hilak 22, osteguna:** ELINTZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ!  
**Hilak 23, ostirala:** TAILERRA: SORGINAK DESMITIFIKATUZ  
**Hilak 28, asteazkena:** ESKULANA: SUREZKO SUGEAK  
**Hilak 29, osteguna:** ESKULANA: ORRI-MARKATZAILEA  
**Hilak 30, ostirala:** ZINEKLUBA: THOR



## 2018ko GETXOEXPRESS sariak eman dira

3. GETXOEXPRESS film laburren Lehiaketan 25 taldek parte hartu dute eta dagoeneko badiitu irabazleak. 2.100€ko balioa duten sariak pasa den urriaren 28an banatu ziren Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Gala horretan, halaber, 42 ordutan grabatu eta ekoiztutako film laburrak proiektatu ziren. Lan horiek ikusi ostean, Itxaso Espinalek (produktorea), Koldo Serrak (zuzendaria) eta Ana Picazak (aktorea) osatutako jaialdiko epaimahaiak honako sari hauek eman zituen:

• **Lehen Saria (1.000€) eta emakume batek zuzendutako film labur Onena:**

C/ SAN JUAN N°5 CHALMSKIN PRODUCTIONS-ek egingakoa. Zuzendaria: Edurne Ainaga. Ekoizleak: Esti Ainaga eta Ander Mujika. Gidoigilea: Edurne Ainaga. Kameraria: Aitor Beltrán. Aktoreak: Edurne Ainaga eta Esti Ainaga.

**Sinopsia:** Ibilaldiak Getxon barrera. Bizitza berri bat. Desku-

britzeke dagoen isilekoa.

• **Bigarren Saria (800€):**

*Expira LAPATX*-ena. Zuzendaria: Alba Lozano. Ekoizlea: Karla Biondini. Gidoigilea: Guillermo Rivas. Kameraria: Andrea Martínez. Aktoreak: Miriam del Preado eta Mikel Román. Muntaiak: Iker Maguregi.

**Sinopsia:** Bi lagunek blablacar bat hartu dute bidaiatzeko, baina emakumezko gidariak ez du asmorik haiek helmugaratu daitezen.

• **Ikusleen Saria (300€):**

*Mi caballo negro de plástico* UGS VISION-ek eginga. Zuzendaria: Adrián Nogales. Ekoizlea: Iñigo Larreina. Gidoigilea: Adrián Nogales. Kameraria: Iñigo Larreina. Aktoreak: Haizea Rodríguez eta Markel Rodríguez. Muntaiak: Ruben eta David.

**Sinopsia:** dena dago keztaturik, dena da plastikoa. Baita nire plastikozko zaldi beltza ere.

• **Getxoko errealizadore onenaren irabazlea:**

*Round Two: Fight!* ALTAIR-ena.

Zuzendaria: Carla Roisin. Kameraria: Jon Garcés. Aktoreak: Carla Roisin eta Jon Garcés. Beste batzuk: Ibai Olabarrieta, Aitor Valdés, Itxasbide, Sweet Home.

**Sinopsia:** Batak, gizonak, erretzen du, besteak, emakumeak, bideojokoekin jokatzeko du. Horrek ez daki zelan libratu zigarror-punten keaz.

• **Euskarazko film labur onenaren irabazlea:**

*Epidemik EPIDEMIK*-ena. Zuzendaria: Asier Rivera. Aktoreak: Andoni Basurno, Jon Legardi.

**Sinopsia:** Antzina gizakiak lurrarekiko zuen jarrera eta gaur egun duenaren arteko konfrontazioa aztertzen duen ikus-entzunezko reflexio alegorikoa da.

• **GaztExpress saria:**

"Madre no hay más que una" Jon Taranilla zuzendaria. Getxoexpressek bere lehenengo ekitaldia 2016an egin zuen *Wanted* Ideien Lehiaketaren sariari esker.

Laburmetraia azaroaren 10ean, 20:00etan, proiektatuko da RKen

## "Hotzean Garbitu" lanaren estreinaldia: bi ezezagun, garbitegi bat



Bi urtez lan egin ondoren, Udalak antolatutako *Wanted* izenburuko 2016ko Ideien Lehiaketaren sari bat jaso zuen taldeak batek jendaurrean aurkeztuko dute *Hotzean Garbitu* izeneko laburmetraia. Estreinaldia RKen, Romo Kultur Etxean, izango da datorren larunbatean, azaroak 10, 20:00etan. Unibertsitatetik atera zirenean, Claudia Martínez, Ane Asla, Maddi Barrenechea, Eneko Díaz eta Marta Teijeira gazteak elkartu ziren eta Udalaren eta Zurrumurruren Aurkako Sarearen finantzaioari esker, ilusio eta lan handiz laburmetraia, arrakastaz amaitzea lortu dute.



*Hotzean garbitu* euskal komedia erromantikoa da, arina eta freskoa. Bi ezezagun garbitegi batean aurkitzen dira, Sara Cozar eta Iñigo Gastesik antzeztutakoak. Hauen arteko harremana garbigailuaren erritmoarekin parekatuko da. Hasi-eran, elkarri hitzik esan ez arren, haien barne pentsamenduak aireratuko dituzte besteari buruzko irudi bat eraikiz. Garbigailua pizterakoan, eserita daudela, haien artean hitz egiten hasiko dira elkar ezagutzen. Poliki-poliki, elkarrizketa hori sakontzen joango da, hain arteko desioa areagotuz.